



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ARAU HONEN ALDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA-IKUSKARITZAREN ANTOLAKETA, FUNTZIONAMENDUA, LANBIDERAKO SARBIDEA, PRESTAKUNTZA ETA EBALUAZIOA ARAUTZEN DITUEN XEDAPEN OROKORRA.

2022ko uztailaren 15ean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legea argitaratu zen EHAA. Lege horrek beste testu artikulatu oso batean sartzen eta biltzen zituen xedapen orokorrak egiteko prozeduraren arloko arau guztiak, eta ordura arte indarrean zegoen legea ordeztu zuen (8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena).

Zehazki, 11. artikuluan, zeina herritarrei aldez aurretiko kontsulta egiteari buruzkoa baita, hau zehazten da 6/2022 Legean:

1. «Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako aldez aurretiko kontsulta-izapide horretan, behar diren neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarteen parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio aldez aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, administrazio langile zein herritarra izan.
2. Aldez aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako molde egingo baita, non xedapenaren hartzailerik izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.
3. Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.
4. Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemaile bat aldez aurretik onetsi ondorengo araugintza-prozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoen izapideak. Memorian horrela jasota utzi beharko da, hala bada».



Hezkuntza Sailak aurreikusita du dekretu bat egiten hastea, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa, funtzionamendua, lanbiderako sarbidea, prestakuntza eta ebaluazioa arautzeko izango dena.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorriz, herritarrek araudia egiteko prozeduran parte hartu dezaten sustatze aldera, arau-proiektua egin baino lehen, kontsulta publikoko aldi bat irekitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren web-atariaren bidez, herritarren iritzia eta etorkizuneko araudiaren eragin handiena jasango duten antolakunde esanguratsuenen iritzia jaso ahal izateko, gai honekin lotuta:

1.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

98/2016 Dekretua eguneratu behar da, ikuskatzeko lana modernizatzeko, eraginkorrago egiteko eta egungo hezkuntza-sistemaren beharretara egokitzeko. Jarraian, jorratuko diren arazo nagusiak azaltzen dira:

- **Arau-erreferentzia zaharkituak.**

Hezkuntza-ikuskaritza arautzen duen indarreko araudia zaharkituta geratu da, baldin hezkuntza-sistemak azken hamarkadetan izan dituen aldaketa sakonekin alderatzen bada. Horregatik, ezinbestekoa da lege-esparrua eguneratzea, erronka pedagogiko, teknologiko eta antolamenduzko berriei behar bezala erantzun diezaien eta lege berriagoekin lerrokatu dadin. Eguneratze horri esker, ikuskaritzari gaitasun handiagoa emango zaio hezkuntza-prozesuak laguntzeko, gainbegiratzeko eta hobetzeko, eta, horrela, kalitatezko hezkuntza, ekitatiboa eta XXI. mendeko beharretara egokitua bermatuko da.

- **Egungo kalitate-sistemaren ikuspegi mugatua.**

Hezkuntza-testuingurua etengabeko bilakaeran dago, eta, egoera horretan, funtsezkoa da hezkuntza-sistemaren kalitatea bermatzen duten eredu eta ikuspegi berrietara egokitzeko beharra.

- **Hiru urteko planen denbora-mugak.**

Hiru urteko planek ez dute nahikoa tarte ematen proposamen esanguratsuak inplementatzeko eta finkatzeko.

- **Ikuskaritza-zerbitzua bera ebaluatu eta hobetu beharra.**

Etengabeko hobekuntza eta gardentasuna indartu behar dira ikuskaritzaren lanean, gaitasunen araberrako kalitateko eta ebaluazioko barne-sistemak txertatuz.

- **Jarduketa-printzipio espliziturik eza.**

98/2016 Dekretuak ez du jarduketa-printzipioen esparru espliziturik. Beharrezkoa da printzipio horiek sartzea legitimitatea, gardentasuna, etika profesionala eta gizarteak ikuskapenean duen konfiantza indartzeko.

- **Gabezia funtzionalak eta antolakuntzakoak.**

Araudia egokitu behar da, antolakunde koherenteago eta eraginkorrago baterantz aurrera egin ahal izateko.

- **Espezializazio handiagoa behar da, ikastetxeei emandako zuzeneko laguntza galdu gabe.**

Erreferentziazko ikuskatzailearen eredia aberastu behar da.

Zonaldeko burutzak izendatzeko malgutasunik eza.

Buruak izendatzeko prozedura hobetu behar da, erantzun arina lortzeko.

- **Jardunaren ebaluaziorik eza.**

Egungo arauak ez du ematen jarduna behar bezala baloratzeko aukera; alegia, konpromisoa eta zerbitzuari egindako benetako ekarpena aitortuz.

Ondorioa

Beharrezkoa da Hezkuntza Ikuskaritza profesionalizatzea, malgutzea eta modernizatzea, egungo erronkei erantzuna emango dien arau baten bidez, estrategikoagoa, kolaboratiboagoa eta etengabeko hobekuntzan zentratua den ikuspegi batetik.

2.- Araua onartzearen beharra eta egokitasuna.

Hezkuntza-ikuskaritzaren dekretu berri bat onartzeak behar bati erantzuten dio; hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Ikuskaritza arautzen duen arau-esparrua eguneratu eta finkatzeko beharrari, bat etorritik azken urteetako lege-aldaketekin eta gizarte- eta hezkuntza-aldaketekin. 3/2020 Lege Organikoak, LOE aldatzen duenak, eta 17/2023 Legeak, EAEko Hezkuntzarenak, berriz definitu dute ikuskaritzak hezkuntza-sistemaren kalitatearen, ekitatearen eta legezotasunaren bermatzaile gisa duen zeregina, eta horrek erregulazio zehatzagoa, modernoagoa eta eskakizun berrietara egokituagoa eskatzen du.

Dekretu berri bat idaztea aukera bat da ikuskaritzak ikastetxeen etengabeko hobekuntzan eragile aktibo gisa duen zeregina indartzeko. Kontua ez da araudia betetzen dela gainbegiratzea soilik; horrez gain, zentroei lagundu behar zaie berrikuntza-prozesuetan, autoebaluazioan eta garapen profesionalean.

Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoa euskal irakaskuntzako funtzio publikoaren barruan berezko kidego gisa antolatzeak ere justifikatzen du dekretu honen beharra. Lanbiderako sarbideari, prestakuntzari, egiturari eta ebaluazioari buruzko erregulazio espezifikoak jarduketa koherentea, espezializatua eta euskal hezkuntza-sistemaren helburu estrategikoekin bat datorrena bermatzen du.

Gizarte- eta hezkuntza-konplexutasuna gero eta handiagoa den testuinguru batean gaudela kontuan izanda, dekretu honek aukera ematen du Hezkuntza Ikuskaritzari tresnak eta egiturak emateko, hezkuntza-komunitatearen eskaerei arintasunez eta zorroztasunez erantzun diezaien.

3.- Arauaren helburuak.

Arauaren helburuak puntu hauetan laburbiltzen dira:

- Hezkuntza Ikuskaritzaren arau-esparrua eguneratzea, 3/2020 Lege Organikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren 17/2023 Legearen arabera, hezkuntza-sistemaren erronka berrietara egokituz.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioak, printzipioak eta egitura definitzea, legezkotasunaren, ekitatearen eta hezkuntza-kalitatearen bermatzaile gisa duen eginkizuna indartuz.
- Ikuskatzaileen Kidegoaren erregulazioa eguneratzea, haien lanbiderako sarbiderako, prestakuntzarako, antolamendurako eta ebaluaziorako irizpide argiak ezarriz, euskal irakaskuntzako funtzio publikoaren barnean.
- Ikastetxeen etengabeko hobekuntza bultzatzea, ikuskaritzak sustatutako berrikuntzaren, ebaluazioaren eta laguntza profesionalaren bidez.
- Koordinazioa eta espezializazioa sustatzea, euskal hezkuntza-sistemaren balioei eta lehentasunei erantzuteko.

4.- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Gaur egungo testuinguruan, beharrezkotzat eta egokitatzat jotzen da dekretu berri honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa, funtzionamendua, lanbiderako sarbidea, prestakuntza eta ebaluazioa arautzea.

Kontsulta publikoaren tramite hori da, beraz, une honetan bideratzen ari garena, aurreikusitako lege-eskemari jarraituz. Arau-proiektua egin aurretik gauzatuko da kontsulta, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. eta 13. artikuluek arautzen duten hasiera-fasearen barruan.

Horiek horrela, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuak esleitzen dizkidan eskumenei jarraikiz, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. - Kontsulta publikoaren izapidea egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren antolamendua, lanbiderako sarbidea, prestakuntza eta ebaluazioa arautzen dituen xedapen orokor bat egiteko proiektuari, hura egiten hasi aurretik.

Bigarrena. - Herritarrek eta arauak ukitutako entitateek, hala nahi badute, agindu honetan azaltzen diren alderdiei buruzko iritzia helaraz ditzakete, hamabost egun balioduneko epean,



Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den egunean.

MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO

Hezkuntzako sailburua